

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## “La Realidad”: Kantabriako ardi beltza

Bizkaiarekin muga egiten du Kantabriak baina euskaldunok turismo edo atsedenelekutzat diogun zaletasunaz aparte deus gutxi interesatzen gara hartaz. Lekuko indar faktikoek zorrotz kontrolatutako lurraldearen fama dauka. *La Realidad* astekariari gertatu zaionak hori berresten du.

**JAVIER ORTIZ** kazetari gure artean eza-gunak hau jarri du maiatzaren 26an bere blokean daukan *Apuntes al natural* atalean: “Santanderreko gaian sakon arakatzea arriskutsua da, eta hala ikusi da sarritan. Hori berresteko aukera izan dugu orain dela gutxi, begien aurrean ikusi dugunean nola suntsitu duten *La Realidad* astekaria, ezker erradikaleko (hau da, ez saldutako) agerkari ahalegin bat bertako mafiak itotzea lortu duena, zintzurrean lotuz pentsa ahala soka guztiak, hasteko judizialak”.

Ortizek “Santander, Basta Ya” izeneko apuntean azpimarratu du astekari horretako zuzendari Patxi Ibarrondori enpresa itxiarazteaz gain bere ezintasun pentsioa enbargatu diola epaileak, zertarako eta galdu zuen epaiketaren gastuak ordaintzeko. Euskal Herriatik net hurbil gertatutako eskandalu honi buruzko informazioa eskueran geneukan, Interneten, baina Javier Ortiz bezalako pertsonalitate batek atera behar izan digu ezkututzen zuten sasien artetik erbia.

*La Realidad* astekariaren xehetasun asko bere fundatzaile izandako Patxi Ibarrondo, Pedro Venero eta Yolanda Secok azaldu zituzten *Viento Sur* aldizkari ezkertiarrean 2003ko martxoan. Euskal Herrian euskarazko egunkari bakarra itxia zuen Aznarren gobernuak eta bere zuzendaritzako kide batzuk espetxean zeuden; ulertzekoa da Kantabriako astekari baten gorabeherek hemen oihartzunik ez izatea.

*La Realidad* 2000ko otsailean plaza-ratu zen lehenbizikoz. Bere bultzatzaile ustez astekari independente batek bazeukan lekua Kantabria bezalako lurralde txiki eta itxi batean, globalizazioaren kontrako mugimendu askoren ildoari jarraituz. “Babes Taldea” osatu zuten aldizkariaren enpresa eraikitze-ko, eta herriz herri jira eta buelta abiatu, dirua eta bazkideak lortzeko. Herri-tar batzuek dirua aurreratu zieten –agerkaria abiarazitakoan interesik gabe itzultzekotan– eta lehenbiziko harpidedunak lortu zituzten.

Bost langileko kooperatibaren inguruan abiatu zen *La Realidad*. Baina proiektua martxan jartzea lan nekeza izan bazen, hesi gogorrago batekin egin zuten topo: publizitate boikota. Kantabria herrialde txikia da, 575.000 biztanle ditu, eta bertan –salatzen dute Ibarrondo eta beste kazetariak– erakunde publikoen eta enpresen artean mugak oso lausoak dira. Inork ez du geratu nahi agintearen saretik kanpo, beste gauzen artean norbere etorkizun profesionala eta familiakoena arriskuan jar ditzakeelako.

Horrela, hasieratik bertatik kasik publizitaterik gabe atera zen *La Realidad*. Herrialdeko aurrezki kutxak, iragarkiari herrietako festen egitarauetan ere ipintzen dituenak, bakar bat ere ez zion eman, ezta ongietorri protokolozkoa egiteko ere. Orobat Santanderreko enpresa eta erakunde nagusiek.

Argazki handian ageri da Kantabria eta Santander aipatzean asko usatzen den irudi famatueta bat: La Magdalena jauregia. Probintzia bakarraz osatutako eta 675.000 biztanle daukan Kantabriako autonomia erkidegoan benetako nagusiak Botin familiakoak dira, Banco Santander ospetsuaren –laster marka horretan laburbilduko dute berriro BSCH erraldoia– jabeak. Haren itzalpean, Kantabriako agintea eta erakunde ekonomikoak partikatzen ditu politikari eta enpresagizon talde txiki batek: Gobernua, udalak, aurrezki kutxa, hirigintza, komunikabideak... Argazki txikian, eskuinean Carlos Saiz Caja Cantabriako lehendakaria *El Pais*eko Jesus de la Sernari komunikazio ataleko sari bat ematen. Sariemaile horrek berak eraman zuen auzitara *La Realidad* astekariako zuzendari Patxi Ibarrondo, eta aldizkaria ixtea gutxi bailitzan, Ibarrondori kalteordainetarako bere ezintasun pentsioaren zati bat kentzea lortu zuen.

Publizitate txikia bai, hasi ziren pixkanaka lortzen. Baina astekariaren sustatzaileek argitu dute, anekdota moduan, bazirela enpresagizon bakar batzuk urtean publizitaterako hainbeste diru ematen zutenak baldintza bakar honekin: bere enpresaren iragarki bat inoiz ez azaltzea. Zer gerta ere.

Baina *La Realidad* errekarera eraman eta bere langileei desgrazia ekarriko zien erasoa beste nonbaitekit iritsi zen: epaitegietatik. Santanderreko epaile batek kondenatu zituen 120.202 euro ordaintzera, Kantabriako PPko idazkari nagusi eta Caja Cantabriako lehendakari izandakoari. Aizkorakada horrek kendu zion bizia Kantabriako astekari berriari. 2001eko abenduan mututu zen betirako *La Realidad*.

### Kazike jaunaren ohore galdua

*Viento Sur* aldizkariaren azken zenbakian, Santiago Mantecón-Cabargak kontatu ditu auziaren xehetasunak eta proiektuaren akabera “La miserable soberbia de la derecha cántabra lleva a Patxi Ibarrondo a la indignancia” artikuluan.

*La Realidad*ek zortzi auziri egin behar izan zien aurre, eta zazpigarrenak hil zuen. Astekariak publikatu zuen bere zenbakietako batean nola Caja Cantabriako lehendakari Carlos Saiz egina zen bidaia bat Suitzara Kantabriako Parlamentuko PPren idazkari emakumezkoarekin. “Tinta Confiden-



cial” atal satirikoan azaldu zuen kontua. Saizek epailearengana jo zuen, eta Santanderreko epaile Laura Cuevas andereak arrazoi eman zion, astekariari 120.202 euroko kalteordainak ezarriz. Hona epailearen argudioa: “Jendeak suposatzen du norbait Suitzara doanean arrazoi ezkutu edo zikinengatik doala, eta horrek kaltetu egiten du Saiz jaunaren irudi etikoa”. Harrapa ezak hankatik!

Handik bost urtera, astekaria aspaldi itxita zegoela, Kantabriako Probintzia Auzitegiak digito batean merketu zuen Cuevas epailearen zigorra: 12.002 euroko indemnizazioa. Asko hala ere, eta gainera ordurako beranduegi zen.

Horrelako erabakiak posible egin zituen araua Aznarren gobernuak pittin bat lehenago ebatzi zuen Auzipetze Kriminalaren Legean zetzan.

Hain da lotsagarria lege hori, herritar boteretsuen ohorea babesteko aitzakiarekin, ezen eta protesta askoren ostean PPko gobernuak berak aldatu behar izan baitzuen berriz 2003an. Beranduegi hau ere.

2002ko urtarrilean eta ondoko hila-beteetan jende mordoxka mugitu zen astekariaren defentsan. Prentsaren Nazioarteko Klubak urteko saria eman zion *La Realidad*i, eta 2003ko urtarrilean adierazpen askatasunaren aldeko Jardunaldiak antolatu ziren Santanderren, zuzenbide, kazetaritza eta kultura munduko pertsonaia andana batekin. Baina fruiturik ez da sortu horietatik. Ondo lurperatuta geratu da 30 langile karrikan eta 5 kooperatibista mixerian utzi dituen enpresa.

Mantecón-Cabargaren artikulua (“Eskuin kantabriarraren harrokeria

mixerableak Patxi Ibarrondo txirotasunera eramán du”) bere arerioen ankerkeriaren berri ematen du. Arazo legal eta ekonomikoek *La Realidad*ekin batera hondoratu baitzuten sustatzaileetako batzuen osasuna ere.

Patxi Ibarrondori 2004an Parkinson gaixotasuna diagnostikatu zioten, eta Mediku Auzitegiek erabaki zuten –*Viento Sur* aldizkariko erredaktorearen arabera– aurreko urteetan jasandako estres iraunkor eta gogorrek eragin ziola. Lanerako ezintasuna aitorturik, pentsio txiki baten eskubidea duela erabaki zuten... bidean Laura Cuevas epaile berrir azaldu zen arte: Santanderreko Probintzia Entzutegiak erabakitako 12.002 euroko indemnizazioa ordain dezan, bere pentsioaren zati bat enbargatzea erabaki du.

Nabarmena dirudi Kantabriar PP eta epaile ultrakontserbadoreek Patxi Ibarrondo eta *La Realidad* disidentziari eskarmentua emateko erabili dituztela. Alderatzen hasita, ezberdinak dira *La Realidad*, *Egin*, *Ardi Beltza* eta *Egunkaria*-ren kasuak, baina antzekotasunak ere bat baino gehiago dauzkate. Tartean, borroako koadrila berekoak zirela (Alderdi Popularrekoak) eta gertakizunak garai bertsuan jazo zirela. Ondorioak ere komunikabide eta kazetariok elkarrekin bateratsu nozitzen dituzte, urte luzeak pasa izanagatik.

Patxi Ibarrondok oraindik zain dauka beste auzi bat: epaile batek 15.000 euroko indemnizazioa ezarri dio, Francisco Rodríguez Ayeso PPko eta Caja Cantabriako buruak ipinitako salaketagatik. Parkinsona hobetuko dio. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>  
helbidean, gai honi buruzko informazio  
gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik  
onenak,  
Zinkunegi Optikan

Aukerarik  
zabalena  
betaurreko graduatu,  
ukipen-lente,  
audiofono eta  
eguzkitako  
betaurrekoetan.

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hemani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskaltel.net  
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A